

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

167n. Zenbakia Urrilla  
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ORREAGA:**

- III SANTXO ERREGE EUSKALDUNA
- EUSKALDUN GUZTIEN ERREGEA

---

**EUSKALERRIAN EUSKERAZ**

---

---

**EUSKERAZALEAK**

---

1992-93 IKASTURTEA  
OGEITABOSTGARRENA

**BIZKAIERAZ**

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK:** **ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN**  
**EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

**ORDUAK:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**ORDAÑA:** 13.000 pezeta.

**IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGI, 14-2  
BILBAO.

URRUTIZKIÑA 423 53 22

25.º CURSO DE EUSKERA BIZKAIKO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

**DIAS:** LUNES, MIERCOLES Y VIERNES  
O MARTES Y JUEVES

**HORAS:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**CURSO COMPLETO:** 13.000 pesetas

**INSCRIPCIONES:** EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.  
TELEFONO 423 53 22

LAGUNTZAILEA

COLABORA

**BBK**

**Bilbao Bizkaia Kutxa**

---

# EUROPA ETA LARRIALDIA

---

## ALKARTASUNA

Europatarrak aspaldiko urteetan gabiltz alkartasun-billa eta oraintsu emon nai izan dan oinkadea, alkartasun orretara eltzeko bidean egin nai dan aurrerapena, Mastritx'eko batzarrean artutako jokabideak dira.

Europa alkartzea eta alkartasun orren barruan geu izatea, euskaldunak antxiñatik ontzat artzen dogun elburua da. Gure Lenengo Lendakaria onetan be aurrelaria ta begi argiko gizona izan zan.

Izan be Europa legez ez ba'da egitez eta kondairaz alkartua izan da: Lur arlo baten bizi gara, alkarragaz burrukea egiten batu gara sarritan, bake-aldietan be bai, salerosketarako sarritan alkartu bear izan gara eta jakintza ta fedea be baterakoak doguz, sarritan jatarriz be alkarragandik ain urrin ez gagozela.

Europa'ko sortaldea ta sartaldea batera bizi izateko sortuak dira.

## EZBARDINTASUNAK

Baiña alkar bizitza ori lortzeko oiñarriak ipiñi gura izan diranean, nabarmen agertu dira daukaguzan ezbardintasun aundiak: Sortaldea ta sartaldea ez dira bardinak, naizta oraintsu sortaldean aldakuntza arrigarriak egiten asi izan, iparraldekoak eta egoaldekoak ez gara ondasunez bardinak, batzuk aurrerago dagoz eta aberatsagoak dira, beste batzuk atzerago ta txiroagoak, izkuntzak ezbardinak dira eta jakintza ta fedea be ez dira beti antzekoak izaten.

Eta alkartasuna egiteko oiñarrietan arazo orreik agertu eta aztertu egin bear dira. Orretarako Europa'k jokabide barri batzuk eskatzen dauz.

## AURRERABIDEAK

Atzeratuta dagozen erriai batez be, eskatzen jakez baldintzak.

Laterri aberatsak gertu dagoz txiroai laguntzeko, baiña onein aldetik be alegin aundi bat eskatzen da aurrerapena lortzeko.

Lantegiak eguneratu egin bear dira. Nork uste izango eban gure Labe Aundiak arriskuan izango zizala? Baiña Europa'n burdin-arloan askoz aurrerago dagoz eta ez dago beste aukerarik: eguneratu edo il. Eta olan beste lantegi asko eta askotan be.

Lanean ekin bear dogu. Au beti egin da eta ez da gutzat gauza barria, baiña lanerako trebetasun geiago eta norberaren eskintza geiago, askoz geiago bear da.

Eta eralketak, aurrerapenerako ez diran eralketak, gauza-zaletasunak eskatzen dauzan eralketak urritu egin bear dira. Bear ba'da merkeago bizi izaten ikasi. Eta ori lan-sariak urritu egingo diralako.

Diruaren balio-galtzea bideratu bear da, beintzat beste laterri batzuren maillara eldu arte. Munduko laterri txiroak baiña askoz obeto gagoz baiña mailla batzuk beragoko balio-galtzea lortu bear dogu.

## ONDORENAK

Europa'ko alkartasunak dakarskun lenengo ondorena azoka arazoa da: Guk egiten dogun esku-lanaren ondorenak Europa'tik merkeago etorriko jakuz eta obeak bear ba'da, eta guk geureak ezin saldu izango doguz. Or daukagu lur-sagar edo patatearen arazo larria. Ondo dakigu, gaiñera, Europa'n abere-dunak ondo lan egiten dabela eta gure kortetako beien ondorenak baiña merkeagoak dirala areinak. Bei-arloan ez daukagu zeregiñik, ardi-arloan jokatu barko, Europa'n ardi gitxi dagoan ezkerro.

## OREKA

Alkartasuna egiten danean, oreka (ekilibrioa) galtzen da eta oraintxe gagoz arazo ori aurrean dogula, baiña zalantza barik, urte batzuk igaro ondoren, oreka barria sortuko da, gure lanen, eztabaiden eta larrialdien ondorena izango da Europa'ko oreka barria.

# ERRI GAZTEEN ITXAROPENA

## MUNDU BARRIA

Bosteun urte bete dira Europa zaarrak eta Amerika'k, adu oneko alkartzea izan ebela. Jakiña, alkartzeak ez dakar beti maitasunezko alkartasuna. Alkartasunean, bietatik batek, buru eta nausi izan nai ba'dau, ez dago norarik.

Benetako alkartasunak ez dau egundo onartzen iñoren menpetasunik. Izan be, alkartasuna eta menpetasuna ezkongai batera-eziñak dituzu, eta ezin sortu ortik etxadi eta bizitegi onik.

Gaurko Amerika'ko gazteen artean argi eta garbi aztertu gura dabez orain arte gertatu diran zorioneko, edo zoritxarreko goraberak. Eta, nor ez?, euren erria, izatea eta izakerearengorengo maillan jarri nai dabe.

Lenengo eta beñ, ezin dabe begi onez ikusi erbesteko menderatzaleak emengo arbasoen oitura zaarrak eta erri jakintza ondatu eta aintzat ez artzea.

Bigarren, naiz eta Kristo'ren sinismena ondasunik onena bezela artu, arri eta zur geratzen dira emen egin diranak ikusteaz. Ori al da Kristau fedea eta ikaspidea? Eta azkenik, Kristau fedeari arpegi eta ikuspide barria ezarri nai dautse. Kristo'k barriztau bear dau, barru-barrutik, giza-semearen izakerea. Ez dago mundu barririk, izakera barri barik.

## EGIAREN BILLA

Egia! Egiak ez ditu bide bi, edo arpegi bi. Zer moduzko egia izango litzake? Zoritxarrez, egiaren arpegiak eta bideak, era askotarikoak izan dira gure artean. Ori dala ta, gaur egun, ziñezko egiaren irrika bizia dakusgu lurralde ontan. Puebla'ko Batzar nagusian sakonkiro aztertu zan gai au. Egia Jainkoari buruz, egia gizonari buruz, egia elizari buruz.

Baña zorioneko egia! Nun eta zelan eskuratu eta osotu egi argi, garbia? Sarri askotan egiaren bidea artu arren, or goaz oker bideetatik gure egiteetan. Jainkoa eta egia bat izanik, makiña bat sasi-jainko erabilli oi doguz gure bizitza makur ontan. "Egia, erregarria" da. Eta miñ emon arren, erre egin bear dauz gure sasikeri guztiak.

Jainkoa maitasun utsa da. Eta maitasun arloro eroan gura dau giza-semea. Baña. ara or, ba. Ortxe datoz gure biurrikeriak eta guzurrak. Eta baten batek itanduko:

Ze Jainko da ori, modu ontako lagunak dituana?

Jainkoaren izena deituz, zelan okerbideak legezkotzat artu leikez?

Jaungoikoa gizonaren oñari eta gidari izanik, zer dala-ta, eta zergaitik ez dogu argi ta garbi dizdirtzen bere maitasuna, ontasuna eta zuzentasuna?

Ara emen ebanjelizatze barri baten arazoa eta bete-bearra. Ortarako Kristo izango da gure "bidea, bizia eta egia",

bere agindua beteaz: "Biotz barriztau zaitetze". Egiaren billa? Ara emen egi bakar eta biribilla.

## GAZTEEN GIROA

An eta emen, azkenengo urteetan, astiñaldi gogorak izan ditu Kristau fedea. Fede-bako gizonak ausarditsu agertzen dira gure sinismenaren oñariak ezereztu, bere sustraiak erre, eta elizaren izen ona eta izana azpiratu nairik. Bestalde, gure gazteek artzen daben ikasketa eta eziketa gari garbia izan bearrean, gari lastoa dozu, bada-ezpadakoa. Irakasleak, barriz, sinismen ezak jota dagoz.

Giro ontan sinismea sendo eta tente eukitea, eta zindo bizitzea, miraririk arrigarriena da, izan be. Bai al dago olako gazterik, emen? Bai, zorionez.

Aurtengo bariku santuan gaztediaren alkartegia ospatu genduan gure elizan. Seireun bat neska mutil batu ziran, bakartade baketsuan, Kristo'ren oñetan otoitz-aldia egiteko. Gazte oneen giroa bai izan zala gozotasunez, bizitasunez eta biotz-berotasunez betea. Nor izan zan bizitasun eta poztasun onen iturburua? Kristo.

Kristo gurutzetua eta berbiztua artu eben euren jarraibidetzat. Zergaitik? Giza-semeen alde Berak, iñok baño obeto jokatu ebalako. Au da, bere bizia emon eta odola ixuri gure pekatuak parkatzeko, pobreak abegi ona egiñ, baztertuak maitatu, gaixoak sendatu, emagalduek zuzenbideratu, humillak goratu, gizon osoa aupatu.

Kristo'rentzat munduko zeregiñik beñena giza-semea bera da, bere azkapena. Kristo'ren graziaz giza-semeak bere gatx guztien kateak autsi egin bear ditu, eta bere etorkizun zoritsuaren egille eta eragille izan bearko da. Auxe da Kristo'ren elburua eta agindua. Eta, zer esanik be ez, emengo premiñarik sakonena.

Ara or, Jainkoari eta gizonari buruz, egirik sinisgarriena. Egi ori egiaztatzeako prest dagoz ainbat eta ainbat gazte. Jaunaren mixiolari eta gizonen serbitzari izan nai dabe. Europa zaarrean abadegaiak beera doazan egun onetan, emen apaiz gazteen udabarria loratzen asi da. Itxaropenaren irrintzia nun-nai entzuten da ego Amerika'n. Ori da bizi eta bizimenaren zantzua. Gogo ori falta danean, gogo gaixorik dago. Gureak egin dau. "Ii agiñean dagona, euliz beterik; bizi-bizirik dagona, euli barik", esaten eben gure asaba zaarrik. Sinismenaren eta itxaropenaren alde ez jokatzea gaixorik edo il-zorian egotea da.

Europa zaarra! Kenduko al dituzu euliak zure arpegitik?

Liina'tik  
URIGUEN'TAR ZENON

---



---

## MENDI-MENDIAN

---



---

Gura Altuna'tar Josu joan jakun arrezko, ZER aldizkari onetan mendietako gaiak irakurteko aukerarik ez dogu izaten. Berak biotz-biotzez maite ta trebetasun aundiagaz erabillan gaia zan.

Poz-atsegiñez irakurten genduzan, sarritan "Basajaun" izen-ordepean estalduta, berak egindako idaz-lan bikaiñak.

Bere aburua emoterakoan ugaritsua izaten zan: Mendia dagon erriaren izena, bide egokienak ara joateko, oianak eta euren zugatz-motak, iturriak eta berezitasun guztiak berak azaltzen euskuzan. Tokian bertan gertakizunaren bat edezti-arauz oroigarria jazo ba'zan be, an egoan "Basajaunak" zeatz-meatz guri jakinerazoteko.

Bein batean, ogeiren bat urte izango dira, nun zan ez naz gomutatzen baiña ni ta beste lagun bi mendi bateko tontorra eldu gintzazanean, an egoan bera, bakar-bakarrrik, oso atsegintsu andik agertzen ziran ikuskizun ederak begira.

Egun on esan eta gero, mendigoizale artean oi dan bezela, alkar-izketa maitegarri bat euki genduan.

Gero, agurtzean:

"Agur ondo ibili", nik.

"Baiña-berak irri-egiñazgarri, anka okerra eskuaz erakutsiz-zelan ondo ibili onegaz?"

Izan be, beñola, motor-txirringan yoiala istripua izan eta ordutik errenka ebillan.

Zer dala-ta otu jat Altuna'tar Josu'ri buruz zeozer idaztea?

Iñok merezimendurik ba'dauko, orri oneitan aipatu ta omenaldi bero baten txalo ugari jasotzeko, bera da; eta izan be, bere orduan beratzaz aldizkari onetan gomuta ta goraspen asko agertu ziran. Baiña oraingoan beste bidetik dator zioa.

Ni be gartzaroan mendizale izana nozue naiz-ta, urteak joan urteak etorri, beste gauza asko bezela itzi bear izan genduzan. Alan be zaletasun ori beti iraun da bizirik nigaz eta, al dan neurrian, noizean bein mendira joten dogu.

Joka-bide onek bultzatuz-edo, lengo egunean Ganeta mendian aspaldian ez nazala egon-ta ara jo neban. Larraskitu'tik gora, Pagasarri-bidea artu, ta laster Erroka Deuna'ren baseliza ezkerretara itxita, benetako aldatza igoten asi giñan. Ez da lar luzea baiña bai neketsua, batez bere bizkarrean zorroz gaiñera larogei urte daroazantzat. Astiro-astiro, geldiketa batzuk egiñez, naiz-ta apur bat nekatuta, Pagasarri'ko zelaietara eldu gintzazan; eskumara dagon azken aldatza igo ta tontorrean gengoan.

Bein goian izan ezker bidezko da, jasan bear izan doguzan neke ta arnas-estuak ondoren, atsedeen-aldi bat

artzea. Bitartean, izerdia kendu ta amaiketakoren bat ekarri ba'dozue, jateko ordua eldu jaku.

Gorputzak galdutako indarrak barrizatu doguzan ezker, gogoari be zor jakona emon bearrean aurkitzen gara.

Izadiak daukazan ikuskizun zoragarriak, iñundik baiña obeto mendi tontorretatik agiri dira. Olako edertasunak begiratzean gogoa atsegiñez lilluratuta geratzen da ta, nolabait, izadiak berak Jaungoikua'ren aunditasuna erakusten dautso.

Zutundu gaitezcan eta ia emendik zelako ikuspegi arriagarriak agiri diran.

Eguzkia lar argitsu dala-ta, eskua bekain gaiñetan ipiñi begiak gerizpetuz eta ara nun ikusten doguzan, gure inguruan, Ganekogorta, Gallarraga, Eretza, Erreztaleku, Pastorekorta, Malbasin eta beste mendi batzuk; baita Anboto, Mugarra... Durango aldera begiratzen ba'dogu; Sollube eta Jata-mendi be, Bermeo eta Mungia aldean oso argi agiri dira.

Eguraldia ona ta argia danez, Nerbion edo Ibaizabal'eko bi aldetan, itxasoraño, dagozan erri guztiak ikusi geinkez. Ain ospetsu dan Portugalete'ko zintzil-zubia, ertz batetik bestera kalzairuzko zokatarretatik eskegita dabilena be, urrun-ikuskin on batzukaz, ikusi leikela uste dot.

Aurrez-aurre gure Bilbo, Bizkai'ko erri-burua, ta Artxanda mendi-bizkarra doguz. Eskumara begiratzean Abril tontorra agiri da ta, azkenean, Ganguren, Galdakao gaiñean dagon mendia.

Itz bi oneik, Ganguren eta Galdakao, Altuna'tar Josu'ren izena ta "Basajaun" bere izenordea burura ekarri dauskuez. Beraz, ara emen len aitatu dogun zioa.

Bera izan zan Galdakao'n Ganguren-Mendi Taldearen sortzaillen artean garrantzietariko bat eta bultzakari andiena. Jakiña da, onelako alkarreak ongarri izaten dirala, batez be, gaztedientzat.

Kristauak izanik eta Santuen Alkartasuna siñistuz, aldi-une egokiena auxe dogu, mendiko bake ta isiltasunean, gure adizkidearen alde otoi bat zerura zuzentzeko.

Gure-Aita bat esaten dogun bitartean, berak ezker onez eta irrikor gure otoi entzungo ebalakoan nago, bere kolkorako esanez:

– "Gizajoak, tontor orretan zetan zagoze? Ni nagon mendi onetara etorri zaitezce; emen bai aize ona, eguzki ederra ta esan-eziñezko ikuskisun soragarriak..."

– "Bai -gu-orretan gabilz alegiñak egiten; artean zuk be ortik lagundu gaizuz Jaungoikoa'ren aurrean bitarteko izanik, eta gero arte.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

## ABOTS EDER AMESGARRI BAT

Plorentzio Konstantino bizkaiatarra daukagu gogoan eta Aguado ta Goiriena'tar Julio'k ondo ezagutzen dau abots zolidun edo tenore au.

Bilbao'ko Udaletxearen jakintza-laguntzagaz ogei ta bost urtean emon eutson lanari Aguado Jaunak, bere ekiñagaz Plorentzio Konstantino Bizkai'ko Enkarterrian jaiorearen bizitzea argitaratzeko.

Argitaratu aurretik jakin-bearrekoak iru gauza oneixek dira: Plorentzio'k gizaldi onen asikieran, jardun-aldi bakoitzeko milla dolar irabazten ebazala; bere dirutzaren %80 txiroentzat emoten ebala; eta Italia'ko Karuso ospetsuari abotsean norgeiagoa egiteko eupadea egin eutsala.

Ortuella'n jaioa zala esan dabe batzuk, beste batzuk diñoenez Bilbao'ko Bixente Deunaren Txadonean bateatua da. Plorentzio berak Buenos Aires'eko izparringi baten Ortuella'koa zala diño. Au onartzeko autorpena da, beste aldetik ziurtasun aundiagorik ez dagoan artean.

Batzuk eres-zalea ta arlo onetan oso trebea zala diño, beste batzuren eritxiz, oster, ori ez da gauza ziurra.

Bere ume-denporan Euskalerrian meatz-toki baten egiten eban lan ura igaroten.

### MAITASUN-EDESTIA

Zelan eldu zan lanbide orretatik abes-zaletasunera?

Neskatilla zoragarri bat aurkitu eban bere bizitzearen bidean: Arrigorriaga ta Larrazabal'dar Luzia. Baiña neskearen gurasoak ez eban onartu matemini ori eta orregaitik bikoteak iges egitea erabagi eban: Itxas-ontzian sartu eta Ameriketara joan eta an, biak kristiñauak ziran lez, eleizaz ezkondu ziran. Gero gogor lan egin bear izan eban, erbesteko bizitzeari aurpegia emoteko.

Konstantino Florentzio'k erri-abestiak abesten ebazan, beste langille batzukaz batera, bazkal-ostean, atsedeen-aldian. Abade batek eta Palazuelo'ko Bibolintari batek esan eutsoen, abesti-gaiak ondo erabilteko, oiñarriz ikasi bear zirala, eta gure Plorentzio'k orixe egin eban.

### SANPETERSBURGO'N

Ondo ikasitako abestien bilduma edo txortea aundia ta zabala zan, baiña ez eban lortu nortasun berezirik, ez eukan berarizko izakerarik. Esan-bearrean nago, (eta au jakin-bearreko gauzea da) an Ameriketara Luzia bere andratxuagaz alkartzen zanean otoitz egiten ebela eta euren otoitzetan iñoz ez ebela aiztuten. Begoña'ko Ama.

Ploro Konstantino'ren abotsa abots-gorena edo tenora zan, eta bera izan zan joan dan gizaldiko belkantista eskolatu on bat: Abots lirain, txairo, bero betea ta gozoa, amets zoragarritz entzutekoa, neurri bako samurtasunez giza-biotzetara sartzen zana.

Madrid'en ondo urten jakon itun baten ostean, Europan zear ibilli zan eta Errusia'ko uri nagusia dan Sanpetersburgo'n be garaille urten eban. Antxe artu eban bein eta betirako "sorbaldakoa". Bera zan Kaiser'entzat abots-gorenik onartuena. Eta gaiñera, Sanpetersburgo'k Italiagaz aldi areitan Antzerki-abestuen arloan artu-emon onak eukazan. Ondo jakiten ziran abeslarien garaipenak eta utsegiteak.

Jazoriko gauzea ete da bein baten Konstantino'k Karuso ospetsuari norgeiagora eupadea egin eutsala? Antza dagoanez, egia da eta eres-aztertzaile batzuk asi ziran esaten Plorentzio'k obeto adierazten ebala eresa.

Puccini'k Manon'en asierea leporatu eutson Prantzia'n. Iparrameriketako arduradunak dei egiten eutsoen eta bera joan egiten zan, ain bide luzea egin bear izan arren. Ez dakigu Karuso'k ori zelan ikuten eban... Dana dala, sarritan abeslarien arteko gorabeera oneik bide bat izaten dira antzokietara jentetza aundiago ekarteko. Ori ondo dakie arlo orretako buruzagiak.

### BULAR BARRUKO DO ERESKIA

Len aitatu dogun Julio Aguago Goiena'k abeslari onen bizitza idatzian eskuak zerura jazoten dauz au gogoratzen dauanean: Plorentzio Konstantino'k abots gorena erabilten ebala dardara barik jatsi eta goratzen me-zoliaz amaituz, bular-barruko do ereskia abesten ebanean.

LETONA'K



### BERBALDIA TA OMENALDIA (Augustin Zubikarai)

Augustin Zubikarai ondarrutarrak egun aundi bi ospatuko dauz bere jaioterrian.

Lenengoa irailaren I9'an. Egun onetan Augustin'ek Euskerazaintza'ra sartzen diranak egin bear daben berbaldia egingo dau Ondarroa'ko Kultur-Etxean. Gaia: Arrantzaleen itzak eta esaldiak. Akademi-giroko berbaldi oneri erantzuna emongo dautso Arrinda'tar Anes'ek.

Bigarreña urrillaren azkenerantza izango da. Ondarroa'k erri lez Omenaldia eskiñiko dautso Augustin'eri eta erriko kale bateri bere izena ezarriko dautso.

Zorionak, Augustin!

EUSKERAZALEAK

## LARRAKOETXEA'TAR EDURNE

Bizkaia'n ezaguna dogu Larrakoetxea sendia. Bilbao uri zarrean garrantzi aundikoa da sendi onek daukan jantzien sal-erosketarako dendea.

Sendi oneri buruz bein baiño sarriago idatzi dot.

Larrakoetxea'tarren entzutea, nortasun aundikoa be ba-da ta, Londres'era be eldu da.

Londres'eko gizon gizatsu bategaz ezkondu zan Edurne Edo Niebes Larrakoetxea neska gaztea, eleizan egindako ospakizun gogotsu baten, biak ziran izan be katolikuak.

Ezkondata gero, lan egiten eban Edurne'k Egazkiñetako laguntzaille edo "azafata" lez eta azkenengoz Pan Am egazkiñetan zan bere lana.

Bera lanean joian egazkiña egaz joiala, barruan lerkai batek egin eban eztanda eta 270 bidelari il ziran barruan. Euren artean ez egoan beste euskotar edo España'tarrak Larrakoetxea'tar Edurne baiño.

Lerkai ori egazkiñean ipintea Lockerbie'ren gaiztakeria zala esan eban, eta Edurneren aiztea dan Marina'k "El Pais" izparringian idatzi eban Siria eta Iran zirala lerkai ori ezartearen errudunak eta erantzunkizuna daukiela, diño, orretan, Ingalterra'k, Alemania'k eta Laterri Alkartuak, aurretiaz egin zan zemaioarra guztiak jakiteko lekuan ipiñi ez ebelako...

Berrogei ta lau urteko andrea dan Larrakoetxea'tar Marina'k auxe gogoratzean dauku: 1989'ko epaillen Eskozia'ko ertzaiñak emon ebezan albisteen bidez jakin zala, egazkiña ezereztu eban lerkai, zalantza barik Maru-an Abdel Razaq Mufit Irisat'ek ipiñia zala eta gizon au Palestina'ko Askatasun-Alkartekoa zala. Ain entzutetsu biur-tu zan Irisat ori 1988'ko urrillean atxillotu eban eta beragaz



*Ezker-aldean, Edurne Larrakoetxea, egnzkinean il zana, bere aiz-teagaz eta amagaz, eriotz-aurreko gabonetan.*

batera beste 16 gaizkille, gogorkerian ebiltzala uste ebanak.

Egun bi geroago Irisat'eri beronen berebillean erratikaseta aurkitu eutsoen mekanika bidez gertatuta egazkin bat zeruan egaz doala apurtzeko eta orrez gaiñera Helsinki'n Erri-Alkartearen Mezu-Ordezkaritzak artu eban zemaia, 15 egun barru apurtuko ebela Pan Am. n egazkin bat.

Larrakoetxea Andreak diñoanez, gogorkeri-arloan jakitun eta irakasle dan Wilkinson'ek 1998'an arturiko zema danetik orixe zala argiena esan eban eta agirian ipiñi bear zala toki guztietan, baiña beste iñok ez eban agertu Errusia'ko Mosku'n dan Erri Alkartuaren Ordezkaritzako iragartolean baiño.

LETONA'K

### BAKEA DALA-TA

Aste eragiña, egun eragiñak, une larriak, eztabaida gogor-rak, batzarrak, alkarrizketak, etabar. Onetariko eginkizunen artean, bai Leitzaran'go autobidea dala, bai Bidart'eko gazteon arrapatzea ez dala, baleiteke, barririk nabarmenena Irun'go Apezpikuaren giltzapetzea izatea. Borondatez edo ezjakintasunez ETA'ko gizonak gaua emotera arteagaitik, ona emen zelan aurkitu leikean gizona espexeraturik eta oraindiño ez dakigula bertatik noiz urten leitekean, ezta urten aal izango ete dauanik bere.

Batzuk, bakerako alkarrizketak egin bear dirala, beste batzuk ezetz, olakorik entzun be gura ez dabela. Eta onelakoak, edo onetara pentsatzen dabenak, egon, badagoz, baiña ez dakigu, orraitio bakea zelako bidetik etorriko dan. Igali elduak zugaitz gaintik beera jausten diran modu-moduan beintzat ez dogu uste bakea etorriko danik, ori ziur. Norbaitek edo zeozere bultzatuta edo lagunduta, bearbada. Baleiteke guk uste dogun baiño jente geiago badagoala zirrikaturik bakearen zain, au egi biribilla da. Baina antza danez, bada egia, zeregin ori, bakearen zeregiña edo danak batera, alkarregaz egin, edo iñork bere ez, obeto deritzoena, Euskalerrriaren ingurunean dagozan Alderdiak, beintzat Ajuria-Enea'ko maian kide diranai, zeintzuk lapikoan burduntzalia sartu eta danak batera eragitean, gesu baten bakearen uso zuri ori ataratzea gura izango leikienak.

Or dago kakoa, lapiko ori, ezer galdu barik zelan edo zegaz ornidu, edo alik eta gitxien eragiñik, beintzat.

Dana dala, azkenengo egunotan ba dirudi bakerako alkarrizketak baketan edo erdi baketan jarraitzeko asmotan dagozela, au oso-osoan egia danik ez dakigun arren, ezta zelan jarraituko diran eta zetarako izango diran bere.

LARRONDO

## "H"REN ARAUAK

Kaixo, irakurzale on! Euskeraz "H" jartzen al dedan ondoena irakatsiko dizut: betiko laupabost arauen sistima jarraituko det, ara:

1.- "H" a ez da jarriko bi bokal berdiñen artean, ez-bait dago bi bokal berdiñik. Au esateko ez naiz Euskaltzaindian oiñarritzen, zenbait idazle onengan baiño: EUSKERAK AURRERA EGIN DEZAN, AINBAT ETA AINBAT IDAZLE ONEK BOKALEN ERREZKETA EDO SINPLIFIKATZEA KOMENDATU DIGU. ONEK AIZEA DAMAKIO ARNASESTUAN DABILLEN EUSKERA GUREARI. Ala nola:

Maats-MATS; leen-bait-leen-LEN-BAIT-LEN; iintz-INTZ; ohol-OL; zuur ("tacaño" esanaiarekin, "prudente" "zur" bait da). ZUR. Euskaltzaindiak ez luke lege au lardaskatu bear.

2.- Erakusleetan ez degu erabilliko, berez ez bait dute "H"rik. Egia da 5% batek, 5% batekm dala-koa arnasten duala:

"argi Hau".

Ori al da idazteko arrazoa? Batzuk ala diote:

"Argi Kau".

50% batek gutxienez, onelaxen:

"argi Yau".

Askotxok ere, olaxe:

"argi Xau".

Baiña onezkero ez degu ez K, ez Y, ez X idatziko. Zergatik "H" bai`?

3.- Zenbakietan ere ez, "H"rik gabe kontatzen badakigulako. Ez gera orren motelak. "Amar", "ogeitamar", "eun", e.a. Orren erreza dezu.

4.- "I" adizkietan ere ez. "H"z idaztea iparreko oitura dezu (daitekeana da "H" a fonetismo edo ots-era bat besterik ez izatea). Gutxiengo batena, beraz. Gaiñera, an I ia-ia galduan dago; Zuberota'n erabat galdu da pitxi eder ori.

5.- Ez dago bestelako "H"rik. Astarloa`k eta batez ere, Arana`k irakatsi zigutenez, euskal soifñu bakoitzak bere izkia edo letra du. Orrexegatik kendu zan "V", "C", "QU" ta, jakiña, "H" a. Aitortu bearra dago alfabeto edo izkidi ori euskerarena dala, berezkoa, ta ez balitz ere, orixe litzake onena iltzen ari dan izkuntza batentzat. Gaelikoak, doixterak, errusirak, italierak alfabetoa erreztu egin dute.

Esate baterako: gaur egun, gero ta gazte gutxiagok daki "caspa" euskeraz "zafia" esaten dana. Batuaz "zaHia" dezute. Ez al dute naiko lan "zafia" dala jaki-

ten, gaiñera, "H" trakets eta markets bat erdian jartze-ko`? Beranduegi danean, orduantxe etorriko negarrak! Euskera, dakizutenez, ez dezute aberri osoaren izkuntza, erdera edo kastillanoa dan bezela. Beraz, euskaldunek oztopo geiago ditue beren ama-izkuntza ondo ikas-teko. Gauza asko, naigabe ere, erderatik artzen dute. Naiko lan badag() zailtasun oiezaz jabetzen, eta ortografia erreza baledi, gustora ikasi lezake euskaldun gazteak. Baiña H ta H jarriz gero, BILDUR DA euskaldun gaztea idazteko, ortografia ezin zailagoa gertatzen bait zaio (oni euskeraz erderaz bezain ondo ez dakila geitzen baldin badiogu, sekulako ajolagabekeria sortzen da). Batuaz letzen dedaneko, onexez jabetzen naiz:

Ia-ia ez dago Hrik bageko esaldirik. Txoro zailtasun oiek orain-da-betiko kendu bear ko lirake. Nere eskuko beatzez konta nezazke H jartzen dakiten nere adiñeko gazteak. Zer esanik ez gazteagoak diranak. Oso erreza bait da H jartzen alegintzeko itza artzea oso erreza HB idatzen, baiña gero iñor gutxi saiatzen da "H"arekin.

"H" a dala-ta, aberri onetan euskeraz ondoen itz-egiten dutenak baztatu dituzte. "H"rik jartzen ez duana "analfabetoa" da, eta orren aurka doana, euskeraren (edo "euskAraren", egoaldeko progreek esan eta beste oi esan-arazten diguten modura) "kontra" omen doa.

Batzuek eskubitartzat artuko naute; oieri bi azalpen eman nai nizkio teke:

Lenen gauza, politikak ontan ez luke berezikeririk sortu bear. Bai eskubitarrek, bai ezkertarrek, danek egin bear luteke euskeraren aldeko lana.

Bigarrena, beste lurralde batzuetan, ezkerak geienetan izkuntzan enparauan edo sobran zeuden gauza batzuk kendu izan dituzte. Errusia'n bertan ere, esaten ez zan izki bat kendu zuten, bearrezko ez ziran zailtasunak kentzeagatik.

kentzeagatik ez degu uste bear izkuntza gaitzetik sendatuta dagoanik, baiña bai pozkida eta aurrerapide ederrak ekarriko lituzkeala. Arnasa eman genezaioke erdi itoka dabillen euskerari.

Izan ere, iparrekoek ere "h"ak beren modura jartzen dituzte ez batuak dioan bezela.

ETXABURUA'TAR ASIER'EK  
(Arbasoen izkuntza-zaleak aldizkarian)



---



---

## EUSKERAZAINTZA

---



---

Bazkide ta adiskide begikoak:

Emen gaituzute, berriz ere zuekin izketalditxoa izateko asmoz.

Erne ibilli bearrean gera, gure izkuntza erabat galtzen ikusi nai ez ba'degu. Alde guzietatik erasoak besterik ez ditugu. Ikusi besterik ez degu Euzkera zaindu bear lutekenak, Eziketa-Zañak (Consejero de Educacion) batez ere, zer egiten ari diran. Argi da "jaun" ori gure Izkuntza'ren, gure Aberria'ren adiskidea ez dala, etsaia baizik. Ikastolak aidean dabilta berari esker. Gezurra dirudi, gure Jaurlaritza izan ta orrelakoak gertatzea.

Nola diteke "Eziketazaingo"ko burua, Euzkera'ren etsaya? Orrela dijoaz gauzak, aurrera bearrean, atzera.

Euzkera zapuztu nai digutenaren aurka gabiltza burrukan; Baiña, tamalez, bi aldekoak ditugu. Len aitatu ditugunak batetik eta "euzkeranto" orren bidez, Euzkera gal-zorian jartzen ari diranak bestetik.

Alegindu gaitzen ba eta bakoitzak gure aletxoa jarri dezagun arazo larri ta garrantzitsu au konpontzeko.

"Euskerazaintza", oraindik askok ez dute ezagutu ere egiten, "Akademia" edo "Eletxea" izan arren. Gaur Euzkera arazoa darabiltenak orixe nai dute, jakiña!

Zabalkundea da bearreazkoa ezagutu erazteko eta onetarako, zabalkundea egiteko alegia, diru asko bear da. Agintezko Erakundeak Euskaltzaindia'ri ematen dio laguntza guzia eta Euskerazaintza'ri berriz oso gutxi. Argi da ba gertatzen ari dana.

"Euskerazaintza" zergatik eta noiz sortu zan ikusi dezazuten, ona Oñatibia'tar Dunixi ta Latiegi'tar Bixente'ren "Euskaltzaindia'ri epaiketa" izeneko idaztitik jasoa:

### EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA

1978'garren urtea zan.

Amaitu berria zuan EUSKALTZAINDIK Bergara'ko Biltzarra, eta Biltzar artako erabakiak aztertzeko, Tolosa'ko Iparragirre antzokian bilduak zeuden KARDABERAZ Bazkune'ko bazkideak.

Aundia zan billera aren altzoan asarrea. Euskaltzaindiak azkeneko amar urteetan erabillitako jokaerak sortarazten zuan asarrea Euskeraren Akademi berri baten bearraz ari ziran Kardaberaz'tarrak mintzatzen".

Aurretik ordea, "expediente" bat egin bear diogu Euskaltzaindia'ri "oles egin zuan billera artako jaunik ospetsuenetako batek.

Euskaltzaindi'koa zan bera. Euskaltzaindikoak, bat, bi, iru eta lau baiño geiago ziran billera artan. Euskaltzaindi'koa zan oles egin zuana ere. "Expediente bat! Expediente bat! Expediente bat...°!"

Bi gauzak artu zituan ontzat, Batzar Orokor artan Kardaberaz Bazkunak. Euskeraren Akademi berri bat sortzea eta Euskaltzaindia'ri "Expediente" bat egitea. Akademi berria bizira erakartzeko BAZKUN ERATZALLE bat autatu zuan antxe bertan, eta Euskaltzaindia'ri "expediente" egiteko, billera artan zegoen idazle bat aukeratu.

Billera ospetsu artan artu ziran erabakietatik jaiotako Akademi, EUSKERAZAINTZA da, Erriaren Euskal Akademia. Billera artako erabakietatik jaiotako bear zuan "expediente" ordea, argirik ikusi gabe dago oraindik, ortarako aukeratua izan zan idazleak-politika eta elerti ekintzetan lanpetuta astirik naikoa izan ez dualako. Eta utsune ori betetzera dator gaur idaztiño au. Laburregia da "expediente" bat, salaketa agiri bat izateko. Baiñan erriarentzat idatzia dalako, ez zitekeen luzeagoa izan ere, gure erriak tamalez, idazti luzerik ez bait du euskeraz irakurtzen. Ala ta guztiz, naikoa dala uste dugu bere laburtasunean idazti au, Euskal-Erria'ri argi ta zeatz, Euskaltzaindi'ko jokaera okerraren berri emateko. Ta baita Euskaltzaindia'ren ume kuttuna dan "BATUA" izeneko izkera zatar orren akatsen berri emateko ere, naiz azkeneko punttu au, gure ustez, bearreazkoa izan... euskeraz mintzatzeko gai diran guztiek ondo ezaguna bait dute "el batua"ren mordolokeria".

Oneraño ba aitatu idaztitik jasotakoa. Zer derizkiozute? Idazti guzia da mamitsua. Orain ez da erreza izango, tamalez, iñun arkitzea,

Aldizkarian, zati garrantzitsuenak emango dizkizuegu, ezin degu ta guztia eman.

ARBASOEN IZKUNTZA-ZALEAK  
ALKARTEAREN ALDIZKARITIK

---

# PATRIZIO ANTONIO ORKAIZTEGI

## ETA "EUSKAL ESNALEA"

### (An~oaingo Udaletxean)

---

Jaun-andreok:

Andoain, lurrez eta gizonez, eder! Emengoa izan zan, baita, egunotan omendu nai dogun Orkaiztegi'ko apaiz jauna ere. Anima zaintzen bezela euskal arloan ere etengabe lan egin ziguna. Urteak dirala, nik onela idatzi nuen berau zala-ta: "Azkarra, zuzena ta biotz onekoa; goikoak eta bekoak guztiz maite izan zutena. Euskaltzale porrokatua ta matematiku ernea". Gaur ere berdin diot.

Apaiztasuna artu ondoren (1865), Sorabilla-n eta Altzo-Goiko-n egon zan animazai; emen zegoela jaiki zan On Karlos erregea, berriz guda gordiña sorturik Euskalerrian, lau urte iraun zuen alkar jotze onek, eta 1876-an, Santa Krutz apaizaren adiskide bait zan, onekin eta beste askorekin, Prantzira iges egin bear izan zuen. Gerra bukatu zanean, Elgoibar-ko parroku egin zuten, eta andik bi urtera Arrasate-ko artzipreste; etzan emen luzaro egon, 1880-an bada Tolosa-ko artzipreste izendatu zuten, eta an bizi izan zan 43 urtetan; 1923-an utzi zuen bere kargua eta urrengo urtean azaroaren 7-an il zan.

Apaiz zan aldetik, egun mergatz aietan ere, zintzo jokatu zuen beti, bere egitekoa arduraz aurrera eramateko bizi-adorerik beñenak zirkin-azorik; bere begi-nini bezela maite zitun Tolosa ta tolosarrak. Zernaitakoa zan, eta zernaik kezkatua zebilkigun, erriko auzi ta arazoetan, jakiña; sarri ipiñi zuen pakea eliztarren etxe eta animetan. Eliz-artzain zanez, artzainaren ardureak ez al du dena artu bear?

Euskaltzale jatorra genun. Zerbait liburu, artikulu ta gauza idatzi zizkigun, baita besteen idatziak argitara eman ere. Baiña ez da nire arloa auek aipatu ta aztertzea. Neri eman didaten gaia, auxe dozue: "Orkaiztegi" ta "Euskal-Esnalea". Ariari oraturik, beraz, ikus dezagun zer burutu zuen aldizkari eder onen inguruan.

Maite zuen Euskalerrria, eta maite zuen erri onek bereberea duen izkuntza, euskera. Ark, ordea, ikusten zuen erderearen oldar artean euskera beerantz zijoala. Au ezin eramanez, bere kemen eta amore guztia jarriko zigun, fedeari bezela, euskereari ere eusteko. Jakite zabalekoa gertatu zanez, orduko euskaltzaleen artean adiskide asko zeuzkan: Kanpion, Azkue, Txomin Agirre, Eleizalde, Andima, eta abar.

Auekin batera, Tolosa-n, alkarte bat sortu zuen. Ona aren elburua: euskaldunak esnatzea. Eta alkartearekin batera, 1908-an, Tolosa-n asiera izan zuen "Euskal-Esnalea"; ilbeltzaren 15-an atera zan lenengo zenbakia, 4 orrialdekoa. Era apalean zetorren, 23 urte iraun zigun aldizkingia. Izenburuaren azpian onela oi: "Gora Euskera maitagarria!" Eta maite dugun zer baten aldeko asko egin dezakegu.

Garai artan euskal lanean ari ziran albistari ta paper guztiai

agur egin ondoren, au dio Orkaiztegi jaunak, len-zenbakian: "Zertara ote gatoz? Zertara ez ote gatoz? Au jakin bear da: gure irakurleak naiko dute noski garbiro esatea, eta gogoz esango diyegu aurreneko egunetik. Erakustera ote gatoz? ezin ukatu: dakigun pixka, bateri erakutsi nai genioko; ez arrokeriz, arrotzeko biderik ez detu-ta; ez besteak baño trebeagoak garalako, gu baño trebego diran euskaldunak baitira. Ikastera ote gatoz? –Baita, baita ere! Askota asko da ez dakiguna. Al balitz guzia naiko genduke ikasi; bañan ikasi gentzakeana beintzat ikasteko eresi aundiz gatoz. Zerbait erakutsi lezakean edozein betor, naiz euskeraz, ta naiz erderaz (beti euskal gayez ordea) mintza bedi, eta pozik entzungo zayo. Gizonak zerbait aurreratu bearrekoak urte ta egun guztiak ditu: oraintxen ere ikastetxera joango giñake; eta euskera ikastera balitz, zale ta gogo geigoz". Ez dago gaizki.

Olaxe asi ta aurrera atera zan Euskal Esnalea bi urtetan. Baiña diru-urritasuna ta eragozpen batzuk tarteko, bigarren urtearen erdirantza agertu zan azken zenbakia; 1909-garreneko dagonillaren 15-an; au esaten zuten: "Euskal Esnalea-k geiago ez ateratea erabaki du". Guztiz 20 zenbaki agertu ziran. Urrengo bi urteetan au da, 1910-an eta 1911-an, 21 eta 22-garren zenbakiak noski, Irun-en atera ziran, leenengoa orri bikin eta bigarrena lau orrikin. Denbora guzti onetan, ots, bi urtetan, 1908 ta 1909-an Orkaiztegi jaunak zuzendu zuen.

Zer asmo edo egituran mende lan egingo ote zuen Euskal Esnalea-k? Ezta arazo erreza guzti edo geienen gustuko aldizkari bat kaleratzea. Baiña garai aretan, nik uste, gaur baiño ere zentzu geiagokin jokutzen zan orretan; erriar irakurleari begira antolatzen ziran albistariak. Ona Orkaiztegi-k nola eratu zuzen bere aldizkariarenlana. Zortzi zatitan bananduta dator:

Lenengo zatia: **Izkuntzaz.**– Emen mintzatuko gera –dio– Euskerazko itz, eta batez ere, itzen joskeraz. Joskeraz beintzat, eta bai al dakizue zergatik? Euskal-joskeraz euskaldunik geienak (agian guztiok) osoro aztuta bizi gerallako.

Bigarren zatia: **Anima janaria.**– Emen dotriña, otoitzak, Jainkoaren aginduak, eliz-gauzak, liburu santuetan ikasi gentzakeana, ta era ontako beste gayak ikutuko ditugu.

Iruugarren zatia: **Antziñako gauzak.**– Batik-bat euskeraz ta Euzkadiri zerbaitez dagozkienak.

Laugarren zatia: **Euskeragatik.**– Zati ontan esango degu Euskeraren alde zeñek, zer, nun lan egin duen, eta egiten ari dan.

Bosgarren zatia: **Irakurgai zarrak. Irakurgai berriak.**– Len euskeraz ezarri ziran, eta gaur ezarriaz datozen liburuen berri emateko izango da zati au.

Seigarren zatia: **Egizko gezurrak.**– ipuyak, ipui antzeko

gauzak, oso ezpada ere, zerbaitean egizko diranak; eta nolana-yeen ere edozeñi bide ona erakusten dioten esakayak, ezarriko ditugu emen.

Zazpigarren zatia: **Nasketa**.– Guk ere andik eta emendik datozkigun gauzatxoak bildu, ayetatik batzuek aukeratu, eta esan bear dizkitzuegu. Ortarako da zati au.

Zortzigarren zafia: **Alper lanak**,– Beste egitekorik gabe lasai-lasai bizi diranentzat, edo-ta eginkizun geyegiz nekatuta, aukeratuko ditugu asmakai ta jolasketa batzuk, zati ontan ipin-teko.

Guk sarri au egiten dugu: gauza bat esan eta beste bat egin. Orkaiztegi etzuen olakorik egin, esan zuenari aurrera eragin baiño. Azal ditzagun pizkat beintzat, asmo auctatik batzuk bederen.

Aipatzen digun lenengo zati edo puntua **izkuntza** da. Eta bi urtetan zenbait euskerar buruzko lan bikain idatzi zizkigun. Aldizkari baten zuzendariak askotan berak bete bear izaten ditu orrialde asko erbistea aurrera ateratzeko. Olaxe Orkaiztegi-k ere. Euskeraz eta erderaz, guztiz egoki idazten zuen. "Por el Euskera" titulupean lan asko ditu. Askoren artean berea du "El relativo en el Euskera", bost artikulua luzez, zentzun aundiz eta sakon osatuak. Ortze datoz ainbat oarpen eta argibide, edozein zeri begira, ortxe datoz Azkue jaunari, beronen Iztegi Nagusia dala-ta, ematen dizkion kintsejuak.

Bigarren arloan, **Arimen janaria** saillean berdin. Apaiz zanez, ezin aaztu anima arloa. Eta beste zeaztasun askoren artean. 4-garren zenbakitik asita, "Ilgandietako Ebanjeliyoak" idazten zituan, euskaldun apaizai bere lana erreztu nairik.

Irakurgai zarrak maite zituan eta berriak. Auetatik batzuk aipatu bakarrik ez-ezik, "Otoitz-Gaiak". Mendiburu-ren liburu ederra, bere esanez eta kemenez argitaratu zan berriz ere, eta "Dotriña laburra", eta Lardizabal-en "Testamentu zar eta berriko Kondaira" eta abar. Gai askotaz "Galde-erantzupenak".

Eragille genuen, eta orduko euskal idazlerik geienak, zer-bait ziranak beintzat lanean jarri zizkigun. Kanpion-ek emen argitaratzen du bere "Gramatica del euskera gipuzkoano", eta Aita Bera kaputxinoak bere "Gramatica euskera". Ementxe eman zuen Eleizalde'tar Koldobika jakintsuak bere "Kristoren Antz-bidea", eta Aita Imanol Arriandiaga-k berea, argitaltzen asi beinbat.

Zerrenda luzeegia duzute Orkaiztegi jaunak zirikatuta "Euskal Esnalea"-n idatzi zutenak. Ezta aipatu gabe uztea, gaurko ere, Azkue'k idatzi zitun bi lan. bata -Acerca del prefijo **des**" eta bestea itzaldi bat, "Eresia" (poesia). Ementxe dator baita Axular'ek laburdi euskeraz idatzi zigun "Gero", Ateaga'r J.A. apaizak gipuzkeraz jarritakoa.

Seigarren egizko gezurak ageri dira. Zer ditugu auek? Ipuiak, auek erdi egi, erdi gezur ditugu. Eta ipuiak gure erriari oso atsegin zitzaizkiolako, "Euskal Esnalea"-n ere asko zetozen; or asi zan olakoak idazten Elgoibar-en animazai zegoen Migel. Urruzuno jauna. Badu onek gatza ta piperra ipui-kontatzen. Ortze agertzen dira Fernando Amezketarrarenak ere.

Eta zer ote ziran "Alper-lanak", ark zortzigarren zatian aipatzen ditunak? Igarkizun, agerkai, ikus-mikusi ta olakoak. Bera matematiku ona zalarik, begira zer jarten digun bigarren zenbakian, gaztetxoena esanez:

"Osoari erantsi Irtengo zatu beti,

zayozu erdiya;	siñistu egiya!
Erdiz tolest-ezazu	Ondotxo pentsatubaz,
bestela guziya.	ezarri begiya:
Eraste ta tolestez	Eta amai zentzake
gai berdin-berdiña	nik emen asiya

Osoa x erdia = Osoa x erdia

Emen ikusten dugu zorrotza zala. Baita emen ikusten dugu olerkari zala ere. Poesi-zale zan eta ainbatek bialdu oi zizkion neurtitz-lanak, eta or datoz poesi artean Paulo Zamarriparenak, Bera'tar Erroman'enak eta bereak, "Oiparrena" ez-izena erabilten zuen.

Berri-zale gera euskaldunok. Griña au ez dago gaizki, baiña zaleegi izan eta norbere iritzietan aurreregi joatea ez daude ondo. Garai artan –gaur ere batzuk ba-dute– euskal itzai sustraia aurkitu nairik bizi-bizi zebiltzanak ez ziran gutxi, eta onek, ez diran gauzarik asko esatera garamazki. Norbaitzuk esan oi zuten, an urruti. Asia-ko ateetan gendula guk geure seaska. Gure omenduak etzuen olakorik siñisten, ezta nai ere. Eta olerki au argitara zuen "Euskal Esnalea"-n; "Ordaintzera" du titulu.

Kaldeatarrak omen dirade	guziya esango zagu.
gure anai ta lengusu;	Zai-zai gauden... ta jakintsu batek
Ayen izkuntza gure au dala	omen nai gaitu argitu,
norbaitek digu ziurtu.	Oraindañoko euskal-zaleak
Ni, ta besteak, berri onetxek	berak zapalduko ditu.
zalantzan ipiñi gaitu;	Nai ta nai ezi, Babilonitartzat
Noiz eta nola ngotarrakin	aitor bearrak gera gu;
ote giñan bada nastu?	Euskal ele ta kaldearrena,
ustekaberik bizitu?	Berdin-berdiñak sustraiz badira,
Noiz ote giñan, andik irten-da,	ezin gentzake ukatu
Nolaz ote du Euskalerriyak	guk gaur degun au lapurtu
ayekin ainbeste kutsu"	Eta lenbailen bearko dira
Bañan... Iruñ-dik laster noskiro	Babel-kalteak ordaindu.

Orkaiztegi jaunak, ba, olerki barrutian ere ba-zekien zer-bait. Bere au beintzat ederki moldatua duzu, egituaz, neurritz eta rimaz. Ba-zekian itz-neurtu txanbeliñaz adarra jotzen.

Bi urtez zuzendu zuen "Euskal-Esnalea". Gero, diruz ez zebiltzala ongi ta gelditu egin zuen Alkarteak. 1910-garrean, orri txiki bat atera zan Irun-en. Baita 1911'an ere; baiña urte onetan, arnasa artu ondoren, berriro asi zan, nai-ta batera ta alkarrekin zabalduak izan, leen euskeraz ta erderaz azaltzen zan "Euskal-Esnalea" onela zetorren: "Euskalerrriaren alde" erderaz eta "Euskal-Esnalea" euskeraz. Kanpion zan geienbat buru ta Gregorio Muxika idazkari; idazkari on, langille, Orkaiztegi izan zan legez. 21 urteko lan bikaiña egin eban bere bigarren aroan; 1931-an, Muxika il zanean, ixildu ta bertatik asi zuen Aitzol-ek bere aroa, "Yakintza" aldizkari ederra-rekin.

Ezin aipatu oraindik ere, lenengo bi urteetan, bere konkurtsoekin eta "Egundiya- ospetsuarekin burutu zuen lana. Baiña onekin naiko.

Larrea, 1986-XII-12  
AITA ONAINDIA

## ASTEGIA'TAR PERIKO ZIZELARIA

Aiztu eziña izan jakon egun baten, Periko Astiaga Austria-Hungria laterriaren Kaiser zanaren andreagaz, aurrez aurre aurkitu zan. Karl Kaiserraren alarguna zan andra ori. Kaiser bere senarra il eta gero ondoko erritxu batera joan zan.

Periko'k orduan amaika urte baiño ez eukazan eta zizel edo gubiaren edertasunak zelan sortu ikasten ebillan, ziba edo tronpa zelan dolatu, zura zelan landu eta abar. "Arotzentzat aldi txarrak ziran eta lan gitxi egoan" diñosku berak. Ondo gogoan daukaz aldi areik orain gure lekeitiar euskaldun zar begiko dan gizon maitagarri onek.

Aitatu dogun Kaiser-Andreak bere errege-etxeko bitxi ta edergailuentzat arasa egiteko agindu eutsan. Periko Astegia'k beronen aukeraz, arasaren ate oietan Austria-Hungriako ikurdia zizelatu eutsan. "Ez jatan ain txarto urten", diñosku poz-pozik.

Benetan esku-lanezko irudi ospetsu ta entzutetsuak egin ebazan gure Astegia'tar Periko'k! Bat beintzat, benetan entzutetsua da, bere egillea espetxera eroatea lortu ebalako. Politika'ko arerioak egin eben ori.

Baiña ondoren ori Iar gazteegia zala lortu eban gure zizelari trebeak, eta gero 21 urtera arte ez eban lan-tresnarik artu. Orain bere erti-lana ospetsu egin da E.A.J.'ren barruan. Astegia egilleak E.L.A.'ri emon dautso Arana Goiri'tar Sabin'en aurpegia, bere artean iñoala: "Erti-lanak ez dau euki bear politikariak, baiña nire arerioek itxuraz ez eben uste olakorik".

Aldia igaroz, Astegia ereduak aldatzen asi zan. Zergaitik? Bere zaletasuna idaztiak irakurtea zalako. Bere liburuak, kondaira arlokoak, politika-arlokoak, ipuiñak, motolojigaiak eta olakoak ziran. Oneik beartu eben bere erti-lana aldatu eta nortasundun gizakiak ateratera. Orrelan, berak jakin barik bere zizelagaz, gaztañazko zurean Churchill, Kennedy, Gandhi ta olakoak sortu ebazan.

Eta orain zer? Jainkoari eskerrak, asetuta, fara-fara ta doatsu dabilgu bere lanaren eskutukiak agertzen eta bere adiskideak arrituta izten.

Periko Astegia'ren teknika, papelean zerbait edo norbait marraztu eta gaztañazko zurean ber-egitea da. Marraztua zurera zabal, edakor, eta oso-osorik aldatzen dau eta antzirudia zizelaren zapladaz, zartadaz eta danbadaz emoten dautso.

Ara zer diñoskun berak: "Ikuiketak emen ezin-besteko arduraz egin bear dira, emen ezin leiz margogintzan lez arretzu ta obetu".

Gure arotz trebe zizelariak, bere langintzaz lilluraturik, egiten dau berba. Eun lan inguru daukoz eginda eta zartzarozan pozik be pozik dago, loba, illoba eta adiskide artean, Jaungoiko on-onak betiko bizitzara eroan arte.

EGILUZE'K



### IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatzia izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatu-errikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.<sup>a</sup> 40.000 pezeta
- 2.<sup>a</sup> 30.000 pezeta
- 3.<sup>a</sup> 20.000 pezeta
- 4.<sup>a</sup> 10.000 pezeta

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

# BERTSOAK

## BEGONA'KO ELEIZAN BIZKAIKO

### ADIÑEKOEN OSPAKIZUNEAN

Urte askotxo dira guztiok  
antxiña ikasi genduna  
Begoña'ko Ama dala danontzat  
gure Zaindari Kutuna,  
Jaungoikoa'ren Ama berbera  
Berak amatzat emona.  
Ori dala ta eldu zarie  
erri askotik gaur ona,  
Berari eskeintzen biotz on bana  
eta eskatzen osasuna,  
baita bizkaitar guztientzako  
bakea ta ondasuna.

Urte askotxo lepoan baña  
gorputza oraindik gordiña,  
badaukagu bai zegaitik emon  
eskerrak Ama Birjiña.  
Lagun eiguzu Ama maitea  
egin daigun alegiña,  
gure aldetik lortu dagigun  
gure Euskalerrri liraiña  
danen aurrean agertu deilla  
siñismenean bikaña,  
auxe litzake zure aldetik,  
esker onaren ordaña.

LERTIBE

## EGUEN-GUREN ZORUNA MAITASUNAREN EGUNA

Maitasun billa  
asaba illak  
ezin leitekez berbiztu;  
bake mutilla  
izan dedilla  
bakotxa bera siñistu;  
alkarren maite  
zar eta gazte  
beti ta edonun agertu;  
alkarren kalte,  
nasteborraste  
larregi genduzan sortu;  
gure artean  
aurrerantzean  
ikusi eziñak baztertu.

Beti burruka  
beti oyuka  
ezin gara alkar ikusi  
alkarren aurka, beti didarka,  
norbera egiñik nagosi;  
geure menpean  
zoritxarean  
koitauak apalaraziz;  
era orretan  
kristau erritan  
eziñ giñeitekez bizi;  
ia beinguan  
bake santuan  
bizitzen daigun ikasi.

Gizadi dana,  
auxe bai lana!  
ei dabil alkartze billa;  
aurrerakuntzan  
naiko ondasuna,  
baña gogoak erdi illak;  
maitasun eske  
Kristoren beste  
norbaitek egin dedilla,  
ta emongo yako.  
danon izenez,  
gure zaindari-makilla,  
berak lenago  
lortzen badeusku  
maitasunaren opilla.

Eguen-guren  
egun zoruna!  
Jaunak aintzat autatua;  
kristiñauontzat  
testamentutzat  
emon nairik agindua:  
"Alkarren arte  
maite zaitze"  
danoi diñosku Jainkuak,  
eta onetantxe  
izango dira  
benetan ezagutuak,  
nire seme ta  
j arratzalleak  
dorean kristau zintzuak

Anai batzarra  
amaitu da ta,  
kristau sintzo lez fededun;  
Jainko bakarra

gurtu dogu ta  
bere seme lez, edonun,  
jokatu daigun  
aste osuan  
kristau moduan gau t'egun;  
Meza santuko  
irakatsiak  
izan daiguzan ezagun,  
jakiñak dala  
Kristo maitea,  
gure bitarteko lagun.

LERTIBE

## ABADEEN ZIDAR-URREZKO EZTEGUEK

Agur abade lankide lagun,  
egun berezi onetan,  
artzain ta buru aurkitzen gara  
zuen ospakizunetan;  
egiz, ederra anaitasuna  
asmetan dot biotzetan,  
txalo eder bat merezi dau ta  
apaizak bere lanetan.

Urteak urte zidarrezkuek  
pozetan dago biotza,  
lan bikain ori eskeinduagaz  
betetzen doa ametsa;  
ekin ta jarrai, berez, eldu da  
berrogetamarren otsa,  
urre izerdiz, ondo, bustirik  
apaiz lanaren bizitza.

Gure erria jaso nai dogu  
lurreko landa orleian,  
kristau usaizko giro ederra  
goralduz gure errian;  
alan itxaso ta miñe lanak  
geureak doguz bizian,  
besarkada bat emon daiogun  
erriari lan bidian.

Eskerrak Jauna, eder dalako  
lurrezan giza bizia,  
oroz goitikan onartuten dot  
apaiz artzain izatia;  
txoriak kanta, erleak ezti,  
burdiñak min zaratia,  
apaizak barriz, jarrai zabaltzen  
Jaunaren jakituria

PAULIN

---

## M. LEKUONA, OLER-ZALE

---

Iñork merezi ba du, besteak beste, goratzarrerik, euskeldunon omenik M. Lekuona dugw. Irurogetaz urteak daramazki euskal lanari lotuta. Burutu digunari, arlo orretan noski, begiratu ezker, anitz alderditik so-egin eta gai asko aztertu ditzakegu. Baiña omen-egiteko ontan niri zeaztua auxe duzute: M. Lekuona'k ederrari buruz osotu duen lana pixkat adierazi.

**M. Lekuona idazle.**— Oso ezaguna dugu Lekuona euskal literaturan. Gazteiz'ko Apaizgaietan irakasten asi zanetik, 1916'tik, dugu idazle bizkor. Idazle ez-ezik, irakasletza bitartean orduko ainbat gazte euskaltzaletu zituna ere bai. "Euskal Esnalea"-n, RIEV-en eta "Eusko Folklore"-n idatzi zuen orduan, batez ere.

Gerra aurretiko lanak ditu auek: "Kristau-Ikasbidea" gipuzkeraz, Zakarias Martinez eta Mateo Muxika'ren Gotzai-idazkien euskeralpenak, "Literatura oral euskal-rica", Barbier'en "Sorgiñak" antzerkia gipuzkeraz. Gerra aldiaren ostean ñork jotako dantza-doiñuan irra egin zuten Apaizgaiko irakaslerik geienak: Lekuona Kalagurri'tik ibilli zitzaigun luzaroan, ango Katedraleko artxibu-zaintza egiñik. Lumaz etzan nagi egon an zegoen tartean; kondaira gaiak aztertu zituen bereziki, Kalaorra'ko, Lasarte'ko ta Andoain'go eliz-arte-lanak eder zitzaizkiola.

**Euskerazko lanik berezienak auek ditu:** "Gorotzika'tik Gurutzeaga'ra", Euskaltzaindian sartu zaneko (1951) itzaldia, "Akillomendi", "Jesusen Jaiotza edertian", "Romanikoa Gipuzkoa'n", "Orixe'ren Euskaltzaindian sartzea" "Santa Klara'ren kanta zahar bat", "Deikia izenetan", "Deikia aditzetan", "Mondragoe sutan", "Berrospe", "Gure bertsolariak", "Gure kantak"... liburuai egindako itzaurreak, eta abar, itz lauz. Olerki-saillean bereak ditu: "Gerrateko nere amabi kantak", "Jesus Aurraren Bizitza", "Belenen, Bizia Maite-irria, Tanzlied", ta besteak.

**Ona ta ederra.**— Liburu Santuak txairo edesten dute munduaren asiera. Zeru ta lur oro, Jainkoak atera zituen ezer-ezetik. Lurra billois eta eragabe zegoen asieran; Jainkoaren ezpiritua zebillen, ala ere, illuna ta billosa mee ta goxo arnasten Ondoren etorri ziran zeruan izarrak eta lurrean belar, zugatz, egazti, abere eta abar; itxaso ere arrain mota askoz bete zan. Azkenez, gauza guztion errege ta jagole bezela, gizakumea egin zuen, esanik: "Egin dezagun gizona geure itxura ta idurira". Eta orrela egiña izan zan gizona.

Ondoren, ikuskatu zituen Jainkoak berak sortutako gauza guztiak, eta **on-onak** iruditu zitzaizkion.

Ona ta ederra bat-bera ziran antziñakoen asmoetan. Geroago asi ziran jakintsuak ederrari esangura berezia

ematen. Barrua ta azala; sarri barrua da ona ta azala ederra: pertsona baten egitadari on deritzaiogu, ta kanpotiko itxurari eder; zer baten balioa muiñean dago, ta zer orren ditzira azalean.

Jaimgoikoa, munduaren Egille gurena, ontasuna bera dugw. Ark egindako mundua, kosmos, eder-ederra. Ederki adierazo zigun au Gurutzeko Juan Deunak, onela abestu zuenean:

"Milla eder-jarioz  
arin igaro zan ibar otatik,  
ta begiratu soillez,  
bere itxuraz bakarrik,  
guztia itxi zigun eder jantzirik".

Aspaldiko jakintsuak izadi zeukaten begi aurrean; zerua, lurra ta itxaso lege berdiñez zebiltzan aien iritiz. Eres-batasuna —armonia— aurkitzen zuten nainon. Landare, abere naiz gizasemeen munduan igiera berdiña zekusten. Mundua orobat bizidun izakia dugu; badu bere gogoa, anima, Jainkoak ematen dion arnasa: Ark eusten dio izadi osoari, bere-bere duen al-izate, jakituri ta edersenez.

Garai artako eder-zaleak laster oartu ziran ontaz. Olerkia ta musika beintzat, goitarrak dira goiargiz ta giza-tiarrak teknikaz. Au gerkar eta latindarrentzat soilki danik, ez uste; gaukoontzat ere balio dula uste du askok. Orixe'k, "Euskaldunak" idaztean, Musai deuka, lez, onela:  
"Zatozkide, Goi arnas,  
eizu nerekin lan,  
erri baten arnasa  
mamitu dezadan".

Ala ere, esan dugun gauza baten ditzira, azala edertu arren, ez da azalak sortzen diguna, barrutik ixuria baizik; muiñetik at datorren indar, kementa ta ezpiritua, ori dugu gizona, izadia bezela, edertu ta apaintzen duena. Gizasemea izadi osoaren bilduma leze da; izadia, berriz, —"Jainkoaren oroitarria"— kosmostar gizakume baten antzekoa dala esan oi da. Ikusten dana ez bait-da egiazko gizona, barnez zuzen-azten duen zer ezkututsu ori baizik. Ilkor ez dan animea dugu noski benetako gizona darabilena. Ederrak, zer esan nai ote du? —Indarra, kemena, osotasuna.

Estoarrak etzuten ederra ta ona erreze bereizten. Ala ere, ona beti da eder, zatien utsunea antolatuz egokitasuna —armonia— osotzen baldin badu. Plutarko'k onela: "Ona naigarri da; naigarria maitagarri duzu; maitagarri dana goragarri; goragarria eder da beti".

**Oler-zale.**— Jainkoak kosmos osoan erein zuen ederraz jabetzea etzaigu ain zailla, zentzunetatik —begi-bela-

rrietatik batez ere— sartzen zaiguna da-ta. Ala ere, nor bakoitzak geure barne-ooiñean nabaitzen duguna adieraztea etzaigu aren erreza. Zenbait alditan, aatik, ederra bete-betea bolbolka lez geure izate barruan oartu ta somatu arren, ez gara sentipen eta barru-zauskada oiek itzez aitzen emateko. Poetak emen, ondo dakusgunez, oler-sena bear du, argia ta bultzada; ta, orrez, gaiñ, teknika, bakoitzak bere izkuntzan barne zirrara oiek adierazpena ezartzeko trebetasuna.

Gaitasun ori aspalditik zekarren M. Lekuona'k. Umetatik zuen, bai, izadiko ederra sumatzeko sena, euskaldun sena noski; baita barne-muiñean nabaitzen zituen eder-susmo, ikutze ta zarrastak adieraztekoa ere. Ortarako bear dan teknika ta buru-lantzeak ikasle zantetik beregandu zituen noski, eder ta olerzale porrokatu ageturik. Orrela daukagu beintzat ogetalau urtedun zantetik, teknika orren jabe jakintsu.

Gazteiz'ko Apaizgaitegian maixu zala, euskera ta literatura azaltzen zituen baitik bat. 1918-1919'garren urteko ikastaroari asiera ematea zan. Lekuona'k egin zuen olakoetan euki oi dan itzaldia, Gotzai, iraskaskide ta ikasleen aurrean. Aurreko urtean, 1917-11-15'an ain zuzen, Ikastetxean euki zuten omen-jai batean Gotzaia euskaltzale agertu zala-ta, euskal auzi bat artu zuen gaitzat: "La M trica vasca". Lan eder eta zentzunez egiña.

Ederra dure elburu erti bikaiñak, eta sail aundi bitan banatzen dira: atsen-lanak (plastikoak) eta igi-lanak (mogimentukoak). Lenengoak, toki edo uts-unean mamitzen dute ederra, ots, etxagintzak, taillugintzak eta margogintzak. Olde edo igi-ertiak, ordea, urrenez urTen edo bein banan adierazten digu ederra; au da, aldia deritzaiogun miesa ibilkor edo dabillan batean: orrela dagie dantzak, musikak eta olerkiak. Iru gaiok, aspaldiko mendetan, etziran iñoiz alkarregandik bereizi ta aldentzen.

Esan dugu: Jainkoak ipiñia da izadian dakusgun taiva; au da, gauza bakoitzak dagokion lekua artzen du, ez geiago ez gutxiago. Gi,ik ere geure soiñean eskuak esku dira, burua buru, oiñak, sabela, begi, belarri... Mundua bertoko gauza guztietan berdintsu da; zer bakoitza bere lekuan dago, eta gauza asko izanik ere, bat egiten dute beren eragin eta arazoan. Askotasunetik batasuna sortzen; oni deritzaiogu ain zuzen era, taiu (ordo), erti-lanetan daukagi.ina. Atsen edo egon-lanetan, plastiku-lanetan —margo-laukian, esaterako— neurri, giño naiz eine deritzaiogu oni, baita armonia ere; mogimentu-lanetan, ordea, igiera, ritmua.

Zer duzu, beraz, igiera? Ondo ibilteko bidea; **arns bene movendi**, Hipona'ko arranoak esan zigunez. Zirkin guztiak, bada, naiz dantzan, naiz musikan, naiz olerkian, beude egoki jarrita, bakoitza bakoitzari dagokion lekuan, ez arago ez onago, ez gorago ez beerago. Au bai gero: beude alkarren artean ondo lotuta, igi-zati guztiak olako batasun batera ekarri ta mugaz menderaturik. Ori diosku M. Lekuona'k, bere barneko oler-zaletasuna erakutsiz.

Zirkin, mogimentu, ots ta doiñu-sail oiei, zerk eman

oi dizkie ala ere batasun dartada? Zer duzu, orraitio, berez kemenik ez duten kizi ta gaioi bizia ta batasuna dakarkien arnas ezkutu, bereizi ori? Eraskin bat da, zerizate bati gaiñ jarten zaiona: zirkiñak alkarrekin duten ar-eman bizia, besterik ez duzu. Zuk ibilli zabiltzala oin bata beian jarten duzu ta bestea jaso; jarri ta ta jaso, bata bestea osatzen du, ta biak, alkarren artean, oinkada pausua— deritzan igiera, irtmua dagite.

**Euskerak ere ritmua du.**— Aitatu dugun jarraiko mogimentu au izkeran ala idazkeran ere ba-duzu, edertzentzunak errez nabaitzen duena. Igia zatietan bereizten da, esaldi, esakun, laburluze ta kakotx-arteko itzetan. Baiña, anitz zati izan arren, batasuna osotzen duen zerbaitera dakarzki guztiok barruko azpizear dabillen arnas edo bizi-ats azkor batek. Ritmua duzu esanari edo idatzi osoari bizi-indarra ematen dion jario ezta; ez gero beti berdin, itogin antzo, banaka ta biñaka zaldiaren trapalatratala edo lauoinka baizik.

Euskerak bere ritmua du itzetan naiz esaldietan. Mintzorrik, azenturik ez duela esan daroagu, baiña ritmuaren gora-bera ez duenik ezin aitortu. Ba-ditu bere silaba luzeak eta laburrak. Gure belarriari atsegiña emateko, bi labur joan litezke alkarri jan-aika, baiña egundo ere ez bi luze ondozka.

Ona izadian dakusguna. Txorro batetik askara txirrioka doan urak ez du ritmurik, ezta leza-zulo batean noizka jausi ta troskak dagizkin ur-istillak ere: lenengoak ezta bereiztasunik, ezta bigarrenak batasunik ere. Zerbait bear da, beraz, luze ta labur, igiera biok alkatu ta atsegingarri egiteko. Jainkoak ipiñi zuen izadian arnasa ori; guk ere, gizaki bezela, antzeko kemenen dugu. Izadia Jainkoak sortua, eta gu Aren irudiko.

Egille aundiak asieran —esan dezagun berriro— neurri ta era erabilli zituen gauzak egiterakoan; ots, izaki guztien erraietan erabat neurria ta taiva kokatu zituen, bakoitzari bere saila ta mailla jarriaz. Ondorenez gizona gai duzu, ez sumatu bakarrik, lendik diran ederrak aztertu ta oraindik ez diran berriak gorputza eman eta eratzeke ere. Or duzu, beraz, gizona ertilari, bere arte lanean, edozein gai ta maillatan.

Enda ta erraza guztiak dute zelai ortan aritzeko esku-bidea. Enda batzuk ala ere beste batzuk iritxi ez diran erpiñeraiño elduak dituzu. Gure erria, euskalduna, goigoi egon izan da beti ritinu-kontuan. Aurrenik dantzari zoli duzu euskalduna; musikari erabat beti izan dio zelatasun bizia; or gure dantza ta eresiak lekuko ari, suar; dantza-giroan bizi gara etengabe, ta ur la lur beti kantari. Itz neurtuetan ere, naiz-ta azken urteotara arte poema guretari exkas xamarrek izan, aoz-ao guregaiño iritxi diran koplak ta kanta zarrak ba-dute, alajakiña, gatza ta piperra!

Eta igiera? Argitasunerako beude emen bi erakusgai, biok gure literatura zarrari dagozkienak, aur-kantak eta bertsolariak; auek bait dira gure izkuntz ritmua ederkien zaintzen dutenak.

**Gure aur-kantak.**– Nun-naiko literaturatan, alegia, aur-kantak dira zar-zarrenak. Jendekiak ere, seaskatik irtetzean, aur gisa mintzatu ta kantatu omen zuten, oiuka ta erdi-totel ta berbartu. Geroago, urteak joan urteak etorri, asmatu zituzten –Jainkoak erakutsiak ezpa-diramakiñatxo bat izkuntza eder, eder oien artekoa –ederrena ezpada– gurea, gure asabak sortutako euskera izanik.

Maixuki aztertu zizkigun Lekuonak euskerazko aurkantzak, euskeraz ta erderaz aztertu ere. Artikulu bikain bat dator euskeraz "Argia"-ren Egutegian (1936, 33 orr.). "Gure kantak" du izenburu, baiña ume kantak darrakzki batez ere. "Koplatxo batzuek kantatu nai dizkitzut –dio, irakurleari zuzenduz–. Zuk atsegin dituzun koplatxo batzuek. Zuk maite-maite dituzun koplatxo batzuek. Umetan danok kantatu izan ditugun koplamaiteak".

Zeintzuk ote dira aun geure ditugun koplamaiteak? Zortzi aitutzen dizkigu: 1) **Xirrixiti-mirrixiti**; 2) **Baga, biga**; 3) **Txin-txiriki-tin**; 4) **Tun-kurrun-kutun**; 5) **Ti-kirri-tiki**; 6) **Ti-tibili-tibili-ti**; 7) **Bitoria! Bitoria!**; 8) **Bunbullun-bunbullunete!** Lekuona'k, bere oler-sen zorrotzez, ederki ere ederki aztertzen ditu zortziok. Ona biri buruz zerbait. Abes-jaietan maiz entzuna duzu au:

"Tun-kurrun-kutun-kutun-kutun-  
tun-kurrun-kutun-a.  
Run-kutun-kutun-kutun-ku  
run-kutun-kutun-a"

Ezer esan nai al dute olako koplak? Mutuak al gara? Bai, berritsu amorratu izanda ere, ez dute esan-nairik. Ezer esan nai ez dutenak dira. Lekuona'k, baiña, onela: "Ezer esan nai ez dutenak... Baña euskaldun jatorren gogoari asko ta asko diotenak". Itz jatorrik, itz garbirik ez dute, egia; baiña ez al dizu ezertxo ere adierazten? Lekuona'k erantzun: "Bai, bañan biotzean, biotzeko txoko ezkutuan; tamasko esan ere, txikitanditako, seas-katitako oroipenez naasia, ta orakatua bait-dago nereztzat... Biotzati mintzatzan zaiolako da guztia. Biotzak ain maite dituan txikitandikako zerak gogoraerazten ditalako da guztia".

Izki (letra) gabeko itzok biotzari ez-zez, buruari ere esaten diote zer-edo-zer. Berriz ere Lekuona'k: "Ez dira itz jatorrak, eta itz jatorrak ez diralako, diotena ez diote garbi-garbi, illun baizik. Bañan buruari ere ba diote zer-edo-zer. Ez bait-da errez "esan-naia" nun asten dan eta nun bukatzen dan erabakitzea".

Baiña aldatu ditzagun itzak. **Tun-ku'ren** ordez jarri dezagun **ti-ki**, eta **run-ku'ren** **ri-ki**; onela:

"Ri-kiti-kiti-kiti -k i,  
ri-kiti-kiton-a;  
ti-kirri-kiti-kiti-ki  
ti-kirri-kiton-a".

Eta Lekuona'k onan: "Arximur berdiña, kilimoa berdiña egiten al dizute zure barruan –abestia, **doña** alde batera utzita ere– koplamaiteak? Ez. Bata illunago da; bestea argiago. Au ariñago; ura astunago. Au alaiago; ura motelago. Au jostalluago; ura lotiago. Biak dira mai-

tekorrak; bañan bata samurrago, barrutiago... **kutunago**; bestea axalekoa, txoroago. Ori edozeñek ulertzen du. Ta izan ere, ala izan bear du".

Errazoa ere bertatik ematen digu, bata ta bestea zertarako diran esanik. "**Tun-kurrun-kutun** –diosku–, aurrari **pestak** egiteko. Bata izki illunez bete dago –dana **u-u-u-z** josia–; bestea dana izki argiz –dana i-i-i-z egiña. Batak, izki-tarteak **n** astunez beterik dauzka –**tun-kurrun-kutun**–; besteak belaun-goza azkeago, lasaia-go, garbiago dauka –**ti-kirri-kiti**–".

Ezta au bakarrik. Onela jarraitzen bait du: "Bada berririk ere. Izki oiek itz jatorrik osatzen ez ba-dute ere, itz-antzeko zerbait osatzen dute. Asierako **kurrun** ori, berealaxe biurtzen zaigu **kutun**. Ta "kutun" itz jatorra da euskeraz. "Maitea" esan nai bait du. Eta **Ri-kiti-kiti**'ren ere berdintsu gertatzen da. **Kiti-kiti** gelditu gabe diotena, entzuten gaudenok, izkiak alkarri lotuaz, **kiti-kiti**'ren ordez berealaxe entzuten diogu **tiki-tiki** ere. Ta "tiki" ere euskeraz itz jatorra da. "Txiki" esan nai bait du".

Ondorengo bezela, gisa onetan amaitzen digu: "Begira nola, ezer garbi esan nai ez-tualarik ere, koplatxo oiek aitzakiren zerbait –asko– esaten dute. Zer esan dezaioke izan ere, amak bere umetxori itz bi oiek baño xamurragorik: "txiki" ta "kutun" baño xamur ta eztiagorik? Txiki guztia polita bait-da; ta kutuna zer esanik ez". Tankera ontan aztertzen dizkigu beste seirak ere.

Gure bertsolariak.– Ez, izkuntza guztiak ez dute, bertsoak bat-batean botatzeko euskerak duen erreztasunik. Ezta oiturarik ere. Eta iñoiz euki ba'dute, gaur galduta dute geien bat. Euskalerriak, ordea, Auñamendi tar-tean arretxiko, sendo eutsi dio len eta orain aspaldi bateko ekandu orri.

Eta galde dezagun aurrenik: zer da bertsolaria? Gure kondairaren gandupean bizi zalarik, bat-bateko izkuntzan beren pentsamenduak jalgi ta aoz-ao, irarkolarik etzanean ere, millaka esan eder, itz zuur ta supita luze-azi ta guri zizkigutenak; geroagoko mendeetan konta ezinaiña bertso berri aletu dizkigutenak; oraingo aldian gure erriaren esnale bizkor diranak.

Bai? Egia ote? Bertsolariak bear ditugula. Ortan al zagoz, irakurle? Orretan omen dago beintzat gure jendea. Euskal arloan ari garanok ez dugu noski oiek duten arnasa –ez gatz ez piper– erriari astiñaldi ederrik emateko. Egia naiz egi-antzeko, errazoiketa sakonegi gabe, au esan dezakegu: "Euskal erriak bide erakusleak bearrezko ditu; ez azpi-jale ta satorrak, egiatzko errizale ta arnas-emaille bipillak baizik. Labur: gure bertsolariak bezelakoak.

Lekuona'k ba-zekien au, ta ortan saiatua dugu gaztetatik. Gure bertsolarien jokabide, jardun, neurri, irudimen, saio, arat-onat, begirune, itzal eta olakoetaz, beste iñork baño gizonkiago itz egin digu bere liburuetan.

Bertsolariaren aurrean beti, lotsa ta adei-lege aunditan, txapela erantzi izan du oiartzuar jakintsuak.



"Bertsolaria, bertsolaria"! –dio–. Zerorrek ere ez dakizu zer zeran zu. Entzuten dizun erriak berriz, susmorik ez du nolako arrigarria daukan zugan". Eta irakurleagana zuzendurik: "Ez dezazula uste izan bertsolaritza atzerapena danik inñolaz ere. Antziña-antziñako bitxia da bertsolaria. Antziña-antziña munduan zabalduago ta ugariago arkitzen zan bitxi bat. Urrea bezela. Len ugariago ibiltzen omen zan urrea ere".

Ezta nolanaiko zera ere, jakintza bat baizik. "Antziña-antziñako jakintza da –dio– bertsoak bapatean egiteko jakintza ori. Idazten edo eskribitzen etzan denborakoa. Gaur gauzak idatzi egiten dira. Orduan ez; orduan etzan ezer idazten. Orduan gauzak gogoan eukitzeko, bertsoetan ipintzen ziran. Gaur oraindik ere, aztu nai ez ditugun errepiñ eta esan zarrak, bertsoetan daukagu".

Emen datza batez ere bertsolariaren jakintza: bertsolariak bere jardunean iru zer auek zaindu bear ditu: kantua, neurria ta puntua. Edozein ez da gai orrela jokatzeko. Lekuona'k: Kantuan ta neurrian ta puntuz itz egitea; buruan jaio dan gogorapen polita, edo biotzari darion poz ezitia, kantuan ta neurrian ta punturik puntu, batbatean, parra-parra esan al izatea. O zeñen gauza arrigarri, jakingarri ta Euskalerriaz beste inñun gutxi ikusten dana...!

Eta Lekuona'k bere liburu eder, **Literatura oral euskal rica** deritzanean, jakintza ori, beste edozein jakintza bezela, aztertu ta sailkatua utzen du. Bost atal ditu liburua: 1) **Aurre-oarrak**; 2) **Aozko literatura erabat eta euskal erriarena**; 3) **Bertsolaritza**; 4) **Kopla zarrak**; 5) **Apain-olerkia**.

Au azaltzen digu lenengo saillean: aozko olerkia zer dan, ritmua, irudien bizitasuna, oroimen sendoa, ta abar; bigarrenean. bat-bateko bertsogintzaren azala ta mamiña jarten dizkigu argitan; irugarrenean, bertsolariaren bideak eta gaitasunak, bereiztasunak, entzutea, kantu-doiñu, neurkera, bertso berriak, kondaira pixkat eta abar dakarcki; laugarrenean, kopla zarrak zer diran, teknika, euron antziñatasuna, sasi-suñu, tritiki-koplak, eta besteak, argibide askoz orniduta, datoz; eta, azkenez, gorago aipatu ditugun aur-koplak zeatzago aztertua damazkigu.

**M. Lekuona, olerkari.**– **Ba-zuen, ezin ukatu,** Lekuona'k eder-sena. Eta oler-sena. Osterantzean ezingo zigun ain sakonki ikasi ta azaldu euskal bertsoaren barne-muiña. Etzigun, damurik, obeki: ez digu kopla askorik ondu. Baiña ondu diguna olaxe landua dago, garbi, argi, aberats eta egoki. Lekuona'ren gogai edo pentsamentua beti ere argi ta garbia duzu; iztegiz, ordea, aberatsa; orixe naitaezko bear bait du elertizko ederrak.

Ez dugu bestetik surrealista edo izandasunez g<sup>g</sup>iteko oien tartekoa. Gaurko poeta askotxu eskola ortakoak diragatik, oiartzuarrak ez du bide ortatik jo nai izan; ez, onek bizkor ta zalu darabil lurra, naiz prosan naiz itz neurtuetan. Esaera zuzen, giarra; dena biotzaren gozotasunez igurtzia. Ipuin antzeko olerki biziak burutu ditu;

ez guk nai beste, baiña ba-du mordoxka bat, Musa goitarrak argi-ixuria eman diotenen artean jartzeko lan egiten dutena.

Gaur maiz esan oi zaio apaizari: "Ez aldarrikatu soilki, eman ere bai". maixuak ere berdin, ez irakatsi baka-riik, baita bere lanetan azaldu ere. Orrela egin du Lekuona'k. Nolako ritmu ta doiñua dantzatzen dan aren olerkietan. Ona, "Azkeneko ola-gizona" deritzaionetik artutako aapaldi au:

"Tiriki-tauki-tauki,

mailluaren otsa...

Gaur gora nai nukela

nik Gabi-arotza,

bai burni-arotza

mailluaren otsa".

Len-arotza nor izan ote? Gogora zaio olerkariari, ta onela kantatzen:

"Lenen mallukaria,

omen, Tubalkain;

lenengo ola-gizona,

antziñako Matxin".

Olaxe eiotzen dizkigu 25 aapaldi, irudiz ta solasez biur.

Ona beste au ere, oso errikoi, "Eroriak" deritzanetik artuta:

"Uso txuriak ugari

eliz-bidean urduri...

Neskatxa gazte itz-jarioak

bide-erdian mutillari:

– Agur, Bixente aspaldikoa:

Melilla'tikan zer berri?

– Melilla'tikan? Ba-dakigu bost...

"Zeñeri?"

– "Ederrenari !"...

– Nik ba-dakit, ba, agitz ongi

bigar zu ara zuazelako

neskatx muxu-gorri bari

biotza edo... ez dakit, ba, nik...

- Bxur-exur!"


"Mami-mami!"

Onako jaki goxotan aoa goza nai baldin ba'duzu, nere poesi bilduma Milla euskal olerki eder liburuan daukazu Lekuona'ren sei lan zein baiño zein bitxiagoak. Ederbera duzu oso; ederra du maite, jakintza gogoko zaiolarik. Itz egokiak, bakoitza bere esan-naiko; esaldiak, berriz, berekin darama doiñu bereziaren aria. Axal ta mami, bikian. Dakianak daki ederra oartuz ta sortuz adierazten.

AITA ONAINDIA


# EUSKALDUN BARRIENTZAT

## ITZ DORREA



- 1.º Zer da beiak emoten dauana?
- 2.º Jateko gogo daukazu eta ez zara egarri. Zelan zagoz?
- 3.º Belarriez entzuten dozu; surraz zer egiten dozu?
- 4.º Irakaslea klasean sartu da; nogaz dago?
- 5.º Irakasleak irakatsi, ikasleak ikasi; Zer da idazleak egiten dauana?
- 6.º Zer da uretan bizi dana?
- 7.º Nun egoten dira otsoak?
- 8.º Nora joaten da jendea, eguzkia artutera?
- 9.º Zein lekutan edaten da ardaoa?
- 10.º Nundik jaitsiten dira mendizaleak jai egunetan?

## AZALPENA



## AOLKUAK

### ONA EMEN GAZOLIN GITXIAGO ERRETZEKO AOLKU BI:

Lenengoa: Berebillean oso arin ba zoaze, ez zabaldu leioak! leio irekiek aizea gordetzen dabe eta orren ondorioz berebillek lan aundiago egin bear dabe aizearen aurka egiteko eta orretarako, gazolin geiago erre bear: batez beste %4 geiago.  
 Bigarrena: Ondo puztuta eroan beti gurpillak, ostantzean gurpillek lan aundiago egingo dabe bide ganean ibilteko.

KARMELE

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.200 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.  
 Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

## GIZONAK JAUNGOIKOAGANANTZ

## Goenaga Mikel Anaia, Txina'ko misiolaria

Anaia Goenaga Urrestilla'ko semea, Loiola'n iI da, 1992 garren urte onetan. Udabarriko arratsalde epel batean berarekin nasai izketan, onelako gauza jakingarriak edestu eustazan.

- Zu Mikel, Txina'n misiolari egona zara.
- Bai, ala da. Txina'n egon naz komunistak andik bota arte.
- Zenbat urte?
- Amasei urte.
- Zer egiten zenduan'?
- Ni geisozain izan nintzan, lenengo Wuhu eta gero Tangtu urian.
- Zelakoa zan zure eguneroko lana?
- Lau txinar laguntzaille neukazan geisoak zaintzeko. Egutero 200 eta gehiago etorten ziran gure "dispentsariora" sendaketa eske.
- Zelako geisoak?
- Begiko, malaria eta paratifika geisodunak batez be.
- Eta ango agintariak ez eutsuen eragozpenik ipinten?
- Bai zera. Alderantziz. Ango "mandarinak" edo "agintari nagusiak" be etortzen jakuzan senda eske.
- Eta komunistakin zer moduz?
- Komunista eurak be apal apal etorten jakuzan sendatzeko eske.

- Alako gertakari jakingarri bat edestu egidazu.  
- Ba zan Txina ipar-aldeko komunista gazte bat, 23 urtekoa edo; astakirten utsa zan, baiña jatorra, bere modura. Egutero gure etxe aurretik igaroten zan 5 edo 6 pertsona afusilatzen eroanez.

Gero arratsaldean, ni bakarrik nengoenean, nigana etorten zan itzegitera. Gazte onek itanduten eustan:

- Zu, zergatik etorri zara Europa'tik Txina'ra? An obeto biziko ziñan emen baiño.
- Bai, baiña zuoi laguntzeko etorri naz ona.
- Zoaz ostera be zure aberrira!
- Ez naz joango zuok botaten ez nauzuen bitartean.
- Zu komunista egin bear zara.
- Ni zuen antzekoa? Ez orixe!... Zuok zergatik ilten dozuez egutero ainbeste gizon jator errurik ez dabenak?
- Guk komunistok geure legeak daukaguz, eta lege orreik onartzen ez dabezanak eriotza irabazi dabe.

IÑAKI GOIEKOETXEA. S.J.

## ENTZUN

Zuk nai dozu EUSKERAZALEA'ren 25n. urtean maite dozun erakunde oneri oparitzu bat egitea? Geuk esaten dautsugu zein dan oparirik ederrena: Bazkide barri bat eta batera ZER aldizkari onen arpedun izango dana aurkitu egizu. Bat baiño geiago aI ba'dozu obeto. Ez da ori ain gauza gaitxa. Egin zuk be zerbait EUSKERAZALEAK ALKARTEAren jai aundi au ospatzeko. Opariagaitik, aurretiaz, gure eskerrik beroena agertzan dautsugu.

EUSKERAZALEAK

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*



**Bilbao Bizkaia Kutxa**